



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 10ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi irailaren hogeita seian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen dira Gobernu Batzordeak 2019koekainaren 12an eta uztailaren 24an buruturiko saioei dagozkion aktak.

2.- INSTANTZIAK

2.1) A.V.Z.k, Iraeta hiribidea 15 etxebizitzako leiho zaharrak eta lurra aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.2) A.I.Z.k, I.udaltzainak bereak eginiko eskaerari sarrerarik ez diola eman eta, bidalitako whassapa inprimatzea eta idatzi zuenari erantzuna ematea eskatzen du. Horrela, protokoloak aldatzea eta Zestoa eta Aiako Udalek Urdanetabidearen egoera larriarekin zer egin behar duten jakitea eskatzen du. Ondorengo erantzutea erabaki da: Udaltzainak telefonoz adierazi zizun bezala, whassapa ez da bidea Udalarekin harremanetan jartzeko. Udalak beste zenbait bide ditu herritarren idatziak jasotzeko; hau da, erregistro orokorrera bertaratu eta sarrera emanez, edota Zestoako Udalaren web orriaren bitartez. Bestalde, Zestoako Udalak Aiako Udalarekin bilera bat egingo du bidearen egoera eta irtenbideak aztertzeko

2.3) P.G.S.k, Zubimusu kalea 6 3.eskubia etxebizitzako sukaldeko trasteak atera eta altzariak kentzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.4) K.L.k, Zesareo Diaz kalea 3ko Jabekideen izenean, eraikin horretan uraren banakako harguneak jartzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.5) G.L.R.k, Toribio Altzaga kalea 24ko Jabekideen izenean, eraikin horretako ganbara pladurrez bereizteko eta bertan dauden zuloak (txoriak eta sartzen dira) tapatzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.6) Ibañarrietako Galdona etxea. Hurrengo Hirigintza eta Pertsonaleko batzordean aztertuko da.

2.7) J.A.E.k, G.F.S.L.ren izenean, industria nabe berria eraikitzeko exekuzio proiektua aurkezten du. Behin betiko exekuzio proiektua ez du aurkeztu, beraz, proiektua aurkeztu arte ez da hirigintzako batzordean landuko.

2.8) M.U.S.k, O.ko pinudia ateratzeko pista egiteko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, gogoraraziz pista irekitzen denean, segurtasun baldintza guztiak bermatu beharko direla eta ezingo dela harririk edo lur pillaketarik zintzilik utzi.

2.9) A.I.k, E. eta bere terreno artetik pinua ateratzeko pista egiteko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, gogoraraziz pista irekitzen denean, segurtasun baldintza guztiak bermatu beharko direla eta ezingo dela harririk edo lur pillaketarik zintzilik utzi.

2.10) J.R.L.U. eta B.B.S.C.k, behientzako ukuilua egokitzeko obraren legezkatze proiektua aurkezten du. Udal bulego teknikoko teknikariak tokira bertara gerturatu ziren eta aurkezturiko dokumentazioa egindako obrarekin bat datorrela egiaztatu zuten. Beraz, aurkezturiko dokumentazioa ontzat ematen da.

2.11) G.C. enpresaren inguruan jasotako kexak:

- A.A.k, Arroako G.C. enpresak isurtzen duen ke beltzaren inguruko kexa aurkezten du.
- J.L.A.L.k, Arroako G.C enpresak isurtzen duena eta kotxean sortu dion herdoilaren inguruko kexa aurkezten du.
- I.A.I.r.k, Arroako G.C enpresak isurtzen duen ke beltzaren eta honek balkoian sortu dituen herdoil pinporten inguruko kexa aurkezten du.
- I.I.I.k, Arroako G.C enpresak isurtzen duen ke beltzaren eta honek kotxean sortu dituen herdoil pinporten inguruko kexa aurkezten du.
- E.k, Arroako G.C enpresak isurtzen duen ke beltzaren inguruko kexa aurkezten du. Atea irekia dagoela eta argazkia eranstean dute.
- E.k, Arroako G.C enpresak isurtzen duen ke beltzaren inguruko kexa aurkezten du. Bideoa eranstean dute.
- U.k, abuztuaren 28an G.C enpresan ateratako argazkiak aurkezten ditu.

Ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- Abuztuaren amaieran Alkateak zuzenean Eusko Jaurlaritzako ingurumen saileko E.D. teknikariarekin telefonoz hitzegin zuen eta azken hau arazoa Ingurumen Saileko Gazteizko bulego orokorretan azaltzera konprometitu zen. Zestoako Ingurumen teknikaria Eusko Jaurlaritzako Ingurumen teknikariarekin harremanetan jarriko da, gai honen inguruan zein erabaki hartu dituzten informatzeko.

2.- Udaltzainari G.C. enpresari egunerako kontrola egiteko aginduko zaio. Erregistro bat beteko dute, atea irekita dituzten edo ez adieraziz.

3.- G.C. enpresaren inguruan Zestoako Udalak jaso dituen kexak ez dira erantzungo, Ingurumen Sailak zein jarrera hartzen duen jakin arte. Beraiekin egon ondoren, erantzungo dira azken asteetan jasotako kexak.

4.- Alkateak, M.T.G. G.C. enpresako gerenteari zuzenean telefonoz deituko dio, azken asteetan jaso diren kexen berri emanez, eta gai honen inguruan Zestoako Udalak duen jarrera azalduz.

2.12) J.L.E.A.k, Arroa Beheko Artzudia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2019ko uztaileko hilabeteari dagokiona. Kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea erabaki da.

2.13) A.A.U.k, Narrondoko Baiona etxean duten lokala bi zatitan banatzeko baimena eskatzen du; eta horrekin batera, "A" lokalari atea jartzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.14) E.R.L.k, udal hilerrian R.L. panteoiko lapida puskatuta dagoela eta argazkiak aurkezten ditu. Udalak aurrekontua eskatuko du, R.L. panteoian egin behar diren konponketen balorazio ekonomikoa egiteko. Ondoren, balorazio ekonomikoa hau Zestoako Udaleko aseguru etxeari igorriko zaio.

2.15) R.O.O.k, Gurutzeaga kalea 6ko Jabekideen izenean, abuztuaren 5ean eta 6an Gurutzeaga 6 portal aurreko aparkaleku bat okupatzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.16) N.O.L.k, liburutegiko ate ondoan "pasabidea debekatuta" seinalea falta dela eta kotxeak kontrako norabidean joaten direla dio. Beraz, liburutegi inguruan seinale bat jartzeko eskaera egiten du. Portale kalea 1 zk.an duen eraikinaren izkinan, bidea puntu horretatik aurrera moztutako dagoela adierazten duen seinalea jarriko da. Bestalde, Udaltzainari Portale kalea 1 zk.aren aurrean jarriko dagoen piboteari asteburuetan, lanean dagoen ordutegian, jarraipena egiteko aginduko zaio. Badirudi, pibote hau zenbait larunbat eta jai egunetan irekita egoten dela.

2.17) Zestoako Udalak, Gurutzeaga 4 zk.an EIT txostena egiteko aurrekontuak aurkeztuz. Erabaki da Gurutzeaga 4 zk.an EIT txostena egiteko lana J.M.C.E. teknikariari esleitzea.. Guztira 800,00 € (BEZ gabe).

2.18) Zestoako Udalak, EIT txostenen balorazio orokorra. Irati Peñagarikano, udal teknikariak honako datuak eman ditu:

- 2. graduako neurri zuzentzaileak dituzten EIT kopurua: 11
- 3. graduako neurri zuzentzaileak dituzten EIT kopurua: 45
- EITa egin beharra daukatela azaltzen duen errekerimentua bidali, eta udalean aurkeztu ez duten EIT kopurua: 75

Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- 2. graduako neurri zuzentzaileak dituzten EIT txostenen jabeei berriz ere errekerimentua bidaliko zaie, lehenbailehen beraien etxeetan egin behar dituzten konponketak egiteko eskatuz. 3 hilabete epean ez badituzte neurriak hartzen, Zestoako Udalak berak hartuko ditu legeak ezartzen dituen neurriak.

Bigarrena.- 3. graduako neurri zuzentzaileak dituzten EIT txostenen jarraipena egingo da eta jabeei errekerimentua bidaliko zaie EIT txostenaren datatik urtebeteko epean zuzenketa txostena Zestoako Udalean aurkeztu behar dutela adieraziz.

Hirugarrena.- EIT txostena aurkeztu ez duten etxebizitzaren jabeei, berriz ere errekerimentua bidaliko zaie Zestoako Udaletik, 2 hilabete epean EIT txostena Udalean aurkeztu behar dutela adieraziz.

Laugarrena.- O. eta U. 1 zk.an kokaturik dagoen G. etxeari dagokionez, jabearen ordezkariekin bilera egingo da Zestoako Udalean. 2 hilabete epean EIT txostenean adierazirikoa neurri zuzentzaileak hartu beharko dituztela adierazten duen idatzia eskura emango zaie.

Bosgarrena.- K.A. 6 zk.an kokaturik dagoen V. A. etxeari dagokionez, etxe jabearen (A. y B.) abokatuak eta Zestoako Udalen abokatuak harremanetan jarriko dira ahalik eta azkarren hitzarmen bat lantzeko.

Seigarrena.- J.E. kalea 12-13 zk.etan kokaturik dauden etxebizitzetarako dagokienez, Zestoako Udalak 2. errekerimentua bidaliko die etxearen jabeei EIT txostena 2 hilabete epean Zestoako Udalean aurkeztu dezaten, eta beraiekin bilera bat egingo da udalean, egoeraren larritasuna azalertzeko.

2.19) Zesareo Diaz Enparantza 3 zk.ondoko plazatxoan berrikuntza lanak. Zesareo Diaz Enparantza 3 zk.ko jabearekin, aurrez adostu zen balorazio ekonomikoari 1.044,00 € euro gehituko zaizkio. Gehikuntza honen %50a udalak ordaintzea proposatuko da eta beste %50 jabearekin.

2.20) J.E.Ag.k, Arroa Errekako posta kutxa eta hondakinen edukiontzia dauden lekuan argitasun falta dagoela dio. Eguzki plaka bidez hornitzen den argiteri publikoko sistema baten aurrekontua eskatuko du Zestoako Zerbitzu Sailak Arroa Errekako hondakinen edukiontzien ondoan jartzeko; eta behin balorazio ekonomikoa Udalen eskutik dagoenean, gaia Hirigintza batzordean landuko da.

2.21) V. eta M.H. .k, berraztertze errekurtsioa tarketatzen dute Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Erabaki da ez onartzea aurkeztutako berraztertze errekurtsioa, ondorengo arrazoiengatik,

Lehena.- Idatzian adierazten den bezala, etxeko sarrera nagusiak partzela pribatu batetara ematen du. Zestoako Udalak ez dauka eskumenik jabetza pribatuko eremuetan. Zestoako erdigunean Udaltzainarekin kudeatzen dira garajeetako edo lokaletako sarrerak oztopatzen dituzten ibilgailuak, baina beti ere, eremu publiko batean aparkaturik egonez gero.

Bigarrena.- Atzeko garajeko ateak, Jabetza Erregistroaren arabera, bide publiko batekin muga egiten duela adierazten da aurkezturiko idatzian. Lehenik eta behin kontutan hartu behar da Zestoako Herri Bideen Udal Inbentarioan ez dela idatzian aipaturiko herri biderik agertzen, eta Udalak ez duela herri bide honen inolako kostantzirik. Hala eta guztiz, eta eskriturretan agertzen denaren arabera, garajeko atea herri bidearen kontra mugakide izango balitz, V. eta M.H.i gogorarazten zaie, herri bide baten gainera ezin dela inolako hegalik atera.

2.22) I.P.A.k, Ibañarrietan autoen abiadura jeisteko oztopoak jartzea eskatzen du. Eskatera onartzea erabaki da.

2.23) E.L.S.k, Zubimusu kalea 14ko Jabekideen izenean, Zubimusu kalea eta ibaiaren arteko belardia txukuntzeko eskaera egiten du. Zubimusu 10-18 zk.en atzekaldetik ibairaino dagoen belardia brigadako lorazaintza taldearen lan zerrendan sartuko da. Ahalegin berezia egingo da udazkenean zelai hau mozteko. Horrez gain, zelaiaren eta etxebizitzaren artean dagoen arbustoa ere moztu egingo da eta txukundu.

2.24) E.S.k, uda garaian haur parke inguruan dauden komun publikoak itxita egon direla eta herriko haurrek beren beharrak egiteko tokirik ez dutela dio. Haur parkean komun publikoa ipintzea aztertzeko eskatzen du. Zestoako Udala herriaren erdigunean komun publikoa jartzeko pausuak ematen ari da. Teknikoki beharrezkoak diren betebeharrak eta balorazio ekonomikoak lantzen ari da. Kokapen egokia zein izango litzatekeen aztertzen ari da momentu honetan.

2.25) Zestoako Udalak, zezen plaza desmuntagarriaren prestaketa proiektua aurkeztuz. Onartzea erabaki da.

2.26) Lautalanek, zezen plaza desmuntagarriaren autobabes plana aurkeztuz. Onartzea erabaki da.

PERTSONALEKO GAIAK

1.- A.A.i, udal eraikineko garbitzaileari lanaldia %100 igotzea.

Arroabeko eskola berria abuztuaren azken astean Udalaren eskuetan jarri zen. Orain arte garbitzaile berdinak garbitzen zituen Ekain Haurreskola, igogailu publikoa, Arroabeko Haurreskola, Arroako eskola, Arroako gimnasioa eta Arroako kultur etxea. Eskola berriaren azalera handia eta ezaugarriak ikusita garbitzaileen berrantolaketa bat egitea beharrezkoa ikusten da. Beraz, ikusirik gaur egungo eraikin publikoen garbiketa antolamentua, A.A. udal eraikinetako garbitzaileari %100 igoko zaio lanaldia.

2.27) J.A.O.k, T.T.S.L.ren izenean, Gurutzeaga kalea 3 behean ogi salmentarako denda irekitzeko aurretiazko komunikazioa eta teknikariaren ziurtagiria aurkeztu du. Erabaki da jakinaraztea teknikari gaituak izenpeturiko dokumentazioan informazioa falta dela eta aipaturiko dokumentazioa osatu eta Zestoako Udalean aurkeztu beharko dela. Dokumentazio gehigarria jasotzen denean, udal teknikariek bisita egingo dute Gurutzeaga kalea 3 zk.an kokaturiko ogi salmenta dendara.

2.28) X.A.Y.k, Lasao auzoan dagoen korreetako buzoi bat eskatzen du Y.E.tzat. Buzoia jartzerako, dokumentazioa aurkeztu beharko du eta Udalak begiratu egingo du Lasao auzoan gaur egun buzoirik libre dagoen edo ez.

2.29) E.I.I.k, Z. etxebizitza berrirako uraren kontadore berria jartzeko eskaera egiten du. Baimena ematea erabaki da, Zestoako Udaleko brigadako ur-hornidura arduradunak ezarritako baldintzak bete beharko ditu ur-kontagailu berriak.

2.30) E.M.S.A.k, T.S.A.k aurkeztutako ENACen ziurtagiri eta entseguen kopia eskatzen du. T.S.A. enpresak ENACen ziurtagiri eta entseguen kopia aurkeztuko beharko ditu.

2.31) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, G.L.S.L.ren iharduerarako aldeko osasun txostena igortzen du. Prozedurarekin martxan jarraitzea erabaki da.

2.32) I.A.A.k, T.A.A.ren izenean, Larrain kalea 3 behean eskubiko etxeari dagokion lurzatiaren jabetza kontuen inguruan aritzeko, Udalari bilera bat egitea eskatzen dio. C.A.SL enpresako ordezkariekin bilera egingo dute Zestoako Udaleko ordezkariak.

2.33) G.P.A.k, kiroldegiko obraren arkitektoaren zuzendaritzari dagokion bermea itzultzea eskatzen du, 1.987,50 €. Bermea itzultzea erabaki da.

2.34) I.I.k, I.ko K. baserriaren barruko banaketako obrak egiteko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.35) J.A.O.k, Aizarnako 12-05 partzelan nekazaritza-tresnak gordetzeko borda eraikitzeke udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.36) Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak, E. baserriaren birgaitzearen exekuzio materialeko zuzendaritza izendatzen du. Izendapenaren berri ematen da eta gogorarazten da, obrako zuzendaritza fakultatibo osoa izendatu behar dela. Obra zuzendaritza ere izendatu beharra dago (arkitektoa).

2.37) Tipula Soroko jabekidearen baitako afera. J.J.G.E.k 03-31 partzela zeharkatzen duen bidea itxi egin du, jabetza pribatukoa dela argudiatuz. Zestoako Udaleko kultur teknikariak egin duen ikerketan oinarrituz, ondorioztatzen da partzela honetako pasua betidanik librea izan dela eta bertako biztanleek betidanik onartu izan dutela erabilera hau. Honela, Alkateak eta Hirigintza Zinegotziak bilera egingo dute J. J.G.E.kin 03-31 partzela zeharkatzen duen bidearen inguruan aritzeko.

2.38) GRI Casting enpresaren inguruko kexak. Ingurumen teknikariak hainbat azalpen eman ditu gai honen inguruan. Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidaliko dizkio. Dokumentazio honekin batera 2 neurgailuak (bat Arroabeko plazan eta bestea industriagunean) jartzeko eskaera bildaliko dio.

Bigarrena.- Zestoako Udala gero eta kezkatuago dago Arroabeko erdigunean eta industriagunean ematen ari diren gertakariekin. Arazoaren larritasuna dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariari, bilera hitzordua eskatuko zaio. Bilerara Zestoako Alkatea, Hirigintza Zinegotzia eta udal teknikariak gerturatuko dira, eta helburua egoraren larritasuna norainokoa den azaltzea izango da.

Hirugarrena.- Alkatea, G.C. enpresako gerentearekin harremanetan jarriko da, azken gertaeren inguruan berarekin hitzegiteko (Udalan jasotako kexak, abuztuko gertakariak, atek irekita...)

PERTSONALEKO GAIAK

1) X. L. A.k, Zestoako Udaleko langileen retribuzio taula eskatzen du. Administrazioako langileen retribuzioa urtero argitaratzen da Estatuko Aldizkari Ofizialean (oinarrizko soldata) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (destino osagarria). Retribuzioa osatzen duen berriazko osagarria Udalak zehazten du. Udalak urtero argitaratzen du lanpostuen zerrenda eta bertan zehazten da berriazko osagarriaren maila.

2) A.A.S.k, 2019ko urriaren 27tik aurrera errelebu kontratua aplikatzea eskatzen du. Erabaki da ontzat ematea eginiko eskaera.

3) A.A.K.k, Zestoako udaleko langileen ordezkari bezala dokumentazioa eskatzen du. Eskatutako informazioa ematea erabaki da.

4) F.I.L.L.k, Zestoako Udaleko Udaltzaingoaren langileen zenbaki pertsonalari buruzko informazioa eskatzen du, lan horrekin loturiko funtzioak bete dituztenak, nahiz behin-behineko funtzionario izan edo kontratu laborala eduki 2013ko abenduaren 31tik idatzi honen datara arte. Informazio horri gehituta data hori baino lehenagoko izendapenak, baina data horretatik aurrera ere udaltzaingoaren lanak egin dituztenak. Eskatutako informazioa ematea erabaki da.

3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.

- 2019ko uztailaren 23an, Kultura eta Ondare Batzordeak egindako bileraren akta onartzen da.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK. - Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 144 zk, kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea.
- * 145 zk, Zestoako Udaleko turismo informazioaren puntuaren kudeaketa zerbitzua A.I.KT S.L. enpresari esleitzea.
- * 146 zk, Zestoako udalerriko hilerritik kendutako loreen ordezkioak ordaintzea J.C.I.A.ri.
- * 147 zk, Zesareo Diaz kalea 3 2A etxebizitzan obrak egiteko udal baimena ematea J.A.A.L.i.
- * 148 zk, 2019ko Lan Eskaintza Publikoa, espedientearen hasiera.
- * 149 zk, Arroagoiko Artetxe etxeko eraberritzearen lan gehigarrien lizentzia
- * 150 zk, 2019ESOR-015- Espedientearen amaiera ebazpena
- * 151 zk, 2019ESOR-0066- Espedientearen amaiera ebazpena
- * 152 zk, 2019 urtean herriko elkarteentzat ezarritako dirulaguntzen ebazpena
- * 153 zk, GFA kontratazio zentralaren barruan berogailurako C Gasoleoaren esleipena
- * 154 zk, GFA kontratazio zentralaren barruan Instalazio Termikoen mantentze zerbitzuaren esleipena
- * 155 zk, Baratze Parkeko 36 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 156 zk, Arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia
- * 157 zk, Arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia
- * 158 zk, M.G.n alta etxez-etxeko langile bezala %23an, I.E.n borondatezko baja ordezkatzeko.
- * 159 zk, 2019ko udalekuetako koordinatzailearen kontratazioa
- * 160 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua
- * 161 zk, Baratze Parkeko 1 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 162 zk, Baratze Parkeko 2 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 163 zk, Baratze Parkeko 3 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 164 zk, Baratze Parkeko 4 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 165 zk, Baratze Parkeko 5 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 166 zk, Baratze Parkeko 6 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 167 zk, Baratze Parkeko 7 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 168 zk, Baratze Parkeko 8 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 169 zk, Baratze Parkeko 9 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 170 zk, Baratze Parkeko 10 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 171 zk, Baratze Parkeko 11 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 172 zk, Baratze Parkeko 12 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 173 zk, Baratze Parkeko 13 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 174 zk, Baratze Parkeko 13 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 175 zk, Baratze Parkeko 14 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 176 zk, Baratze Parkeko 16 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 177 zk, Baratze Parkeko 17 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 178 zk, Baratze Parkeko 21 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 179 zk, Baratze Parkeko 22 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 180 zk, Baratze Parkeko 23 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 181 zk, Baratze Parkeko 25 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 182 zk, Baratze Parkeko 26 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 183 zk, Baratze Parkeko 27 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena

- * 184 zk, Baratze Parkeko 28 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 185 zk, Baratze Parkeko 29 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 186 zk, Baratze Parkeko 31 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 187 zk, Baratze Parkeko 33 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 188 zk, Baratze Parkeko 34 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 189 zk, Baratze Parkeko 35 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 190 zk, Baratze Parkeko 37 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 191 zk, Baratze Parkeko 40 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 192 zk, Zestoako Udaleko bide bazterretako sastrakak garbitzeko zerbitzu kontratazioa
- * 193 zk, Zestoako Udaleko arkitekto aholkularitza kontratazioa
- * 194 zk, Behin betiko bermearen itzulketa 2016ko arkitekto aholkularitza kontratuaren amaieraren ondorioz.
- * 195 zk, N.Ot.n jornada aldaketa M.Ai.n gaixotasun baja amaituta
- * 196 zk, Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena
- * 197 zk, Arroabeko parkean eta Ariztondo plazan argiteria publikoan obrak egiteko lanen esleipena
- * 198 zk, Kiroldegirako bizikleta estatiko bat eta 2 korrika egiteko zinta
- * 199 zk, Kiroldegirako bizikleta estatiko okertu bat eta 2 eliptika
- * 200 zk, Kiroldegirako bizikleta estatiko bat eta 11 indoor bizikleta
- * 201 zk, Kiroldegirako 5 indar aparatu
- * 202 zk, Kiroldegirako Unity 3.0 pantailadun bizikleta estatiko bat
- * 203 zk, Kiroldegirako bizikleta estatiko okertu bat eta 2 korrika egiteko zinta
- * 204 zk, Kiroldegirako Hanken prentsa makina eta 7 estazioko kruzeko polea
- * 205 zk, Kiroldegirako gimnasiaorako, indoor gelarako eta muskulazio gelarako ispiluak
- * 206 zk, Argiteri publiko lan-gehigarrien fakturak EVeren dirulaguntzarekin konpentsatzeko ebazpena
- * 207 zk, Kiroldegirako bulegorako materiala eta kanporako mahaia eta tabureteak
- * 208 zk, Kiroldegirako muskulazio, spinning eta pilates geletarako materiala
- * 209 zk, Arkitekto aholkularitzaren kontratazio espedientea eta txosten bidaltzea OARC-era eta H. I.Y.i jakinaraztea
- * 210 zk, Ariztondo plaza 3 eraikineko EITaren ondorioz egin beharreko konponketetarako obra baimena
- * 211 zk, Alokairuko dirulaguntzen ekaineko ordainketa
- * 212 zk, Gizarte larrialdietarako laguntzen ekaineko ordainketa
- * 213 zk, Arroagoiko Kutrulu etxeko obrak gelditzeko errekerimendua
- * 214 zk, 2019ko Aurrekontuaren 1.aldaketa hasiera emateko ebazpena
- * 215 zk, GFA kontratazio zentralaren barruan gas naturalaren hornidura zerbitzuaren esleipena
- * 216 zk, Zestoako Udalak 2017 urtean herriko elkarteentzat ezarritako hainbat dirulaguntza berrikusten dituen.
- * 217 zk, Zestoako Udaleko Euskaltegia eratu eta kudeatzeko zerbitzu kontratazioa
- * 218 zk, Arroabehan tiropitxoia jartzeko baimena
- * 219 zk, Arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia
- * 220 zk, Arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia
- * 221 zk, C.P.k duen pabiloiko teilatuan eguzki plakak jartzeko udal baimena
- * 222 zk, Z.L.A.n kontratazioa eraikinen garbitzaileen oporrak ordezkatzeko

- * 223 zk, B.M. A.n kontratazioa brigadako peoien oporretako ordezkapena egiteko
- * 224 zk, Lanbideren bitartez bi peoi kontratatzeke ebazpena.
- * 225 zk, Arroabeko eskola berriaren inguruko urbanizazio lan obraren kontratuaren aldaketa espediente hastea
- * 226 zk, Arroabeko eskola berriaren inguruko urbanizazio lan obraren kontratuaren aldaketa espediente proiektua onartzea
- * 227 zk, Arroabeen hanburgesak saltzeko furgoneta jartzeko baimena
- * 228 zk, Gurutzeaga kalea 3 3D etxebizitzako sukaldea eta bainugelan eraberritze lanak egiteko obretako baimena
- * 229 zk, Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena
- * 230 zk, Uztaileko Gizarte Larrialdietarako laguntzen ordainketa
- * 231 zk, M.N.n kontratazioa etxez-etxeke langileen oporren ordezkapena egiteko
- * 232 zk, Idiazpi auzunea 5 4B etxebizitzako bainugela eta sukaldean obrak egiteko udal baimena
- * 233 zk, Gisasola egoitzako behea eta parkinerako sarrera lotzen dituen bidean obrak egiteko udal baimena
- * 234 zk, Zestoako zezen plaza ez-finkoa instalatzeko baimena emanaz.
- * 235 zk, A.M. etxez-etxeke langile bezala %100ean kontratatuz, oporren ordezkapena egiteko
- * 236 zk, A.A. kirol langilearen %50eko kontratazioa
- * 237 zk, 2. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) _ Lorbidea 1.
- * 238 zk, 2. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) _ San Isidro 14
- * 239 zk, 2. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) _ Arroaerrekako bidea 9
- * 240 zk, 2. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) _ Ariztondo 3
- * 241 zk, M^aK.I.n kontratazioa udaltzainen oporrak ordezkatzeko
- * 242 zk, Zestoako Amabirjin jaietako tiro pitxoia eta ahatean arrapatzeke kaseta jartzeko baimena
- * 243 zk, Zestoako Amabirjin jaietan autotxoakeak jartzeko udal baimena
- * 244 zk, Abuztuko Gizarte Larrialdietarako laguntzen ordainketa
- * 245 zk, Zestoako Euskaltegia kudeatu eta eratzeko kontratuaren behin betiko esleipena
- * 246 zk, Zestoako Amabirjin jaietan zaldiko maldikoa jartzeko baimena
- * 247 zk, Zestoako Amabirjin jaietan ohe elastikoak eta White Pol jolasa jartzeko baimena

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

_ Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, 2019ko abuztuaren 9an errepidea erabat ixteke baimena igortzen dute, txirrindulari proba ospatzeko.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 15:30ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue
Idazkaria,

O.e
Alkateak,